



## **UDALAK %15 JAITSIKO DIE ZABOR TASA 5. EDUKONTZIA ERABILTZEN DUTENEI**

Donostiako Gobernuak %15 merkeago kobratuko die zabor tasa 5. edukiontzia erabiltzen dutenei, hau da, gai organikoak birziklatzeko erabiltzen den edukiontziaz baliatzen direnei. Hala, bere gain hartutako konpromisoetako bat beteko du Gobernuak, eta berretsi egingo du zaborra birziklatzearen alde egindako apustua. Izan ere, birziklatzea gora doa gure hirian eta, orain, biltzen den guztiaren %39 da.

Ernesto Gasco Donostiako lehen alkateordeak eta Alfonso Gurpegui Ingurumeneko zinegotziak kanpaina bat aurkeztu dute gaur, 5. edukiontzia erabiltzaile gehiago lortzeko asmoz, horrek ekarriko baitu birziklatze tasak handitzea eta zabortegetara eramaten den zaborra murriztea.

Ernesto Gascok gogora ekarri duenez, 5. edukiontzia erabiltzen dutenei zabor tasa jaitea talde sozialistaren lorpena izan da, zuzenketa baten bidez lortu baikenuen Ordenantzan sartzea. Orain, gure proposamena errealitate bihurtu da, edukiontzi hori erabiltzen dutenei zaborraren ordainagirian aplikatuko zaien %15eko murrizketa hori dela-eta.

Formula finkatzeko irizpideen inguruko eztabaida neketsua izan da. Bosgarren edukiontzia erabiltzen duten pertsonak askotarikoak dira eta, hortaz, kasuistika oso handia da. Azkenean, honako irizpide hau hartu dugu: deskonturako eskubidea izateko, donostiarrek 5. edukiontzia erabiltzeko behar den txartela izan behar dute eta edukiontzia, gutxienez, hilean lau aldiz erabili. Ezarritako baremoak kontuan hartzen du “hilabeteko oporraldia” izatea.

Seme-alabak dituzten familiek, seguruenez, gehiago erabiliko dute edukiontzi organikoa —Ernesto Gascoren esanetan— eta pertsona bat edo bi bizi diren etxeetan, gutxiago erabiliko da. Baina gure asmoa da edukiontzi marroia erabiltzea sustatzea, hari esker nabarmen jaisten bada zabortegira eramaten den zabor kopurua.

Ernesto Gascok azaldu duenez, datuei erreparatuta, ia 10.000 pertsonak izango dute aipatzen ari garen deskontua zabor tasan, eta horrek esan nahi du Udalak 125.000€ inguru itzuliko dituela aurtén.

Deskontua, erabiltzaileak txartela eskuratzean aditzera ematen duen kontu korrontean sartuko da zuzenean. Txartel bat emango da etxebizitza bakoitzeko, eta etxebizitza horrek Donostian kokatua egon behar du.

Gaur egun, 20.726 erabiltzailek dute 5. edukiontzia erabiltzeko txartela, hau da, Donostiako etxebizitzaren %26,95ek. Ezarritako irizpideen arabera, erdiek izan ditzakete aipatzen ari garen deskontuak zabor tasan.



Honakoak dira ehunekoak, auzoka: Amara Berri da 5. edukiontzia erabiltzaile gehien duen auzoa (etxebizitzaren %35,4), haren atzetik, Miracruz-Bidebieta datoz (%29,9); Gros (%29,6); Egia (%27,4) eta Añorga (%27,3). Erabiltzaile gutxien dituzte Igeldok (%3,59), Zubietak (%8,18) eta Zorroaga-Miramonek (%13,95).

Aipatzekoa da, bosgarren edukiontziaz gain, konpostaje zuzena, bai etxean egiten dena bai komunitarioa. Konpostajeari dagozkion hobariak lehendik ezarrita daude. Donostian, 87 familiak hartzen dute parte konpostaje komunitarioan eta 616 familia izena emana daude etxeko konpostaje; horietaz gain, beste 120 familiak interesa erakutsi dute edo informazioa eskatu.



The poster features a dark brown background. At the top, the word "Edukiontzi" is written in a light green, sans-serif font. Below it, the word "marroia" is written in a large, white, sans-serif font, with a stylized apple core icon integrated into the letter 'o'. Underneath "marroia", the phrase "morroi izan gabe" is written in a smaller, light green, sans-serif font. A horizontal line separates this from the next section. Below the line, the phrase "Este contenedor no es un" is written in a light green, sans-serif font. This is followed by the word "marrón" in a large, white, sans-serif font, also with a stylized apple core icon integrated into the letter 'o'. At the bottom of the poster, there are four circular icons: a green circle with a plant, an orange circle with a bird, a teal circle with a fish, and a yellow circle with a leaf. Below these icons, the text "Hondakin organikoen edukiontzia" is written in a light green, sans-serif font, followed by "El contenedor para los residuos orgánicos" in the same font and color.

Bosgarren edukiontzia erabiltzaile kopurua handitzeko, kanpaina bati ekin zaio lehen esan bezala. Honako leloa du: **“Edukiontzi marroia, morroi izan gabe – Este contenedor no es un marrón”**. Kanpainak herritarrei ohartarazi nahi die materia organikoa birziklatzearen garrantziaz, hondakinen frakzio hori birziklatzeak dakartzan abantailez informatu eta konposta sortzeko erabil daitekeela jakinarazi. Hala, edukiontzi marroia abantaila da ingurumenerako, eta ez “fardel” bat (gaztelaraz diogun bezala, ez da, inola ere, “un marrón”).

Kanpainako liburuxkak bihar hasiko dira 35.000 etxebizitzetako buzoietan banatzen, Aieten, Antiguan, Altza-Larratxon, Erdialdean, Ibaetan, Intxaurren, Martutenen eta Loiolan, besteak beste.

Liburuxkan azaltzen da nola izena eman 5. edukiontzia esperientzian parte hartzeko, nola jaso poltsak eta zer hondakin organiko motak utzi daitezke edukiontzian, konpostatu ahal izateko. Kanpainaren helburua da orain baino donostiar gehiagok parte hartzea gai organikoak birziklatzeko prozesuan, horrela lortuko baitugu zabor gutxiago eramatea zabortegeira.

Urtarrilean, kanpainaren bigarren zatia egingo da. Orduan, iragarkiak jarriko dira txitetan, irratietan eta autobusetan.

